

- **Ze behar edo arazo konpontzen duzue?**

Gaur egun Euskal Herriko paisaia ederretan ateratzen diren argazki kaxkarrak hobetzeko helburuarekin diseinatu dugu gure objektua. Azken urteetan, "selfie" deituriko fenomenoarekin, istripu tasak handitu eta argazkien kalitatea jaitsi da dudarik gabe. Honengatik guztiagatik, gure mugikor euskarriak kalitate baxuko argazkien arazoa argituko du Euskal Herriko paisaia guztietan, baita istripu edo egoera arriskutsu asko ekindin ere.

- **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Egia da munduaren txoko ezberdinetan horrelako asmakizun antzekoak ikus daitezkeela, helburu berdintsuekin. Baina gure ideiak QR kode bat edukiko du beste produktuengatik desberdintzeko. Bertako kodeak sare sozial batera eramango du argazkia ateratzen duen pertsona zuzenean. Sare sozial hori euskaraz izango da, eta bertan euskal paisaien argazki ezberdinak igo ahal izango dira, euskal argazkilari komunitate polit bat sortuz. Arriskurik gabe eta kalitatezko argazkiekin!